


Fundación
BBVA




Darío Martín

pianoa



Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2020
05
MAR



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak ezagutza zientifikoaren eta kultura-sorkuntzaren inguruan antolatzen du bere jarduera. Alde horretatik, gizarteak musikaren arte-adierazpena eskuratzen duen modu desberdinetatik barrena egingdako ibilbide osatu baten antzera antolatzen du bere Musika egitaraua. Era horretan, obra berrien sorkuntza sustatzen du konposizio-enkarguen bidez, eta horiek zaintzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen du punta-puntako zigilu eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musika sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bidez, eta doakoak direnez, gaur egungo errepertorioan erreferentzia bilakatu diren ensemble eta bakarlariek jartzen ditu publikoaren esku. Hitzaldi-zikloak antolatzen ditu eta hainbat argitalpen kaleratzen ditu egileen, instrumentujotzaileen eta zuzendarien lana hobeto ulertzeko, edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketan sakontzeko.

Musikari gazteen heziketa sustatzen du Reina Sofía Musikako Goi Eskolarekin garatzen dituen programei esker, eta ikertzeko, musika-ondarea berreskuratzeko eta sorkuntza-lan guztiz berritzaileak burutzeko proiektuak garatzen ditu Musika eta Opera arloko Leonardo Beken bidez.

Orkestren kudeaketari buruzko jardunaldi espezializatuak antolatzen ditu; estatu osoko opera-antzoki eta musika-egitura nagusiekin elkarlanean dihardu —hala Teatro Realekin nola Gran Teatre del Liceurekin, baina baita Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin ere—, eta horiei esker, goi mailako kontzertuak eta opera-programak eskaintzen ditu; eta bikaintasuna aitortzen du Musika eta Opera alorreko Ezagutzaren Mugak BBVA Fundazioaren Sariaren bitartez eta Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarte BBVA Fundazioaren Konposizioaren Sariaren bitartez.

Fundación Joaquín Achúcarro

Joaquín Achúcarro espainiar pianojotzailea mundu osoan ezaguna da, 1959an Liverpooleko Nazioarteko Lehiaketa irabazi zuenetik. Estatu Batuetako, Argentinako, Alemaniako, Austriako, Erresuma Batuko, Japoniako eta Australiako areto garrantzitsuenetan aritu da, errezitaldiak emanez eta solista gisa berrehun orkestra eta hirurehun zuzendari baino gehiagorekin.

Hainbat eta hainbat sari irabazi ditu, Espainiako saririk garrantzitsuenak barne, hala nola Gran Cruz de la Orden del Mérito Civil (2003), Medalla de Oro al Mérito en las Bellas Artes, Juan Carlos I Erregeren eskutik (1996), eta Premio Nacional de Música (1992). 1999an, Unescok 2000ko Bakerako Artista izendatu zuen. 2018ko otsailaren 22an, Real Academia de Bellas Artes de San Fernandoko Musika saileko Ohorezko Akademiko izendatu zuten. 1989tik, Joel Estes Tate katedra betetzen du Achúcarro Maisuak, Southern Methodist Universityn (Dallas, Texas).

Fundación Joaquín Achúcarro Janet Kafkak sortu zuen, Espainiak Dallasen

duen ohorezko kontsulak. Lucille Chung eta Alessio Bax pianistak dira gaur egun Fundazioaren zuzendari artistikoak, biak ala biak Achúcarro Maisuaren ikasle ohiak. Fundazioaren lehen kontzertua 2007ko udaberrian izan zen, eta harrezkero hainbat lekutan aurkeztu ditu pianista gazteak: Washington D.C.-n, Phillips Bildumarekin elkarlanean, eta Galeria Nazionalean; Chicago, Instituto Cervantesen; Miamin, Centro Cultural Españolarekin elkarlanean; Bostoneko Unibertsitatean; baita Dallasen, Houstonen, Milwaukeeen eta Estatu Batuetako beste hainbat hiritan ere. Halaber, fundazioak Guatemalan eta Mexikon ere eman ditu kontzertuak.

2012az geroztik, BBVA Fundazioak eta Fundación Joaquín Achúcarrok hitzarmen bat sinatua dute, interprete gazteen bira bat egiteko urtero. Hitzarmen horri esker, prestakuntza-programan nabarmendu den ikasle batek kontzertu bana eskaintzen ditu BBVA Fundazioaren Bilboko eta Madrileko egoitzetan. Gau gaueko kontzertua Achúcarro Maisuaren omenez egingo da.

Interpretea

Darío Martín

pianoa

Egitaraua

Ludwig van Beethoven (1770-1827)

21. sonata, do maiorrean, op. 53, «Waldstein» 25'

- I. Allegro con brio
- II. Introduzione. Adagio molto
- III. Rondo. Allegretto moderato — Prestissimo

Enrique Granados (1867-1916)

Goyescas, op. 11

- Los requiebros 8'

Heitor Villa-Lobos (1887-1959)

Bachianas brasileiras n.º 4 20'

- I. Preludio (Introdução)
- II. Coral (Canto do Sertão)
- III. Aria (Cantiga)
- IV. Dansa (Miudinho)

Enrique Granados

El pelele 5'

Alberto Ginastera (1916-1983)

Danzas argentinas, op. 2 8'

- I. Danza del viejo boyero
- II. Danza de la moza donosa
- III. Danza del gaucho matrero

Ludwig van Beethoven

21. sonata, do maiorrean, op. 53,
«Waldstein»

Sonata op. 53a, Ludwig van Beethovenek Waldstein kondeari eskainia eta 1803 eta 1804 artean konposatua, bi goitizenez ezagutzen da: *Waldsteinena* eta *Goizalba*; lehenaren zergatia argi dago, bigarrenak apetazkoa dirudi. Felipe Pedrell sonata beethovendarren analista goiztiarraren hitzetan «obra bikain, zeharo sinfonikoa» den hori hiru mugimendutan egituratuta dago, minuetorik gabeko sonata klasikoak nola, baina berezitasun batekin: Erdiko mugimendua, geldoa, kasu honetan *Adagio molto* motakoa da, eta amaierako mugimendua-ren *Introduzione* gisa jokatu du. Hala, «Waldstein» sonataren trinkotasun formala oso nabarmenezkoa da (ia erabat diptiko izaerara murriztuta dagoenez).

Lehen mugimendua sonata tankerako *Allegro con brio* bat da, espero diren bi tema funtsezkoekin: lehenena, do maiorrean, eta bigarrena, mi maiorrean, eta elkarren arteko kontraste nahikoa dute garapen-atalak joko «dramatikoa» eskaini dezan; berraurkezpen laburtuari funtsean lehen teman oinarritutako koda luze batek jarraitzen dio. Aipatutako *Introduzione. Adagio molto*

horrek fa maiorrean tonuan egiten du aurrera, eta izaera gogoetatsu eta poetikoa du, zeinetik zuzenean eratoritzen baita amaierako *Rondoaren* oinarritzko tema (do maiorrean itzultzen den *Allegretto moderato* bat). Horri, pasarte *Prestissimo* batek jarraitzen dio, motibo beraren gainean osatutako koda distiratsua sortuta. Beethovenen kasuan maiz gertatzen den legez, *Rondo* izenburuko honetan uztarri berean lotuta daude rondoaren eta sonataren konposizio-erabilerak, tema nagusia nahiz tartekatzen diren bigarren mailako motiboak aldatu eta zertxobait garatzen direlako agerraldi bakoitzean, rondoaren eskema errazetik nabarmen aldentuta.

Dena dela, originaltasunagatik bainoago, Beethovenek vienar klasizismotik jasotako molde formalen maneiari darion nortasun sendoarengatik bainoago, maisu gazteak zekarren lengoia berriaren, musikaren adierazpen-balioen gaineko ikuspegi berri horren indarraren erakusle delako nabarmendu behar da *Sonata op. 53*, giza sentimen barneko eta gordeenen adierazpen artistikoari bide eman zionez. Izan ere, 1804an, obra hori amaitu zuen urte berean, Beethovenek «*Appassionata*» sonata eta «*Heroica*» sinfonia konposatzeari ekin zion. *Waldsteinen* eta *Appassionatan*,

Mozarten eta Haydnen pianoa anplifikatuta sumatzen da, soinua indartsuagoa da, kementsuagoa, ozenagoa, gama dinamiko eta kromatiko zabalagoa, eta tema-garapenak luzeagoak dira, tema bakoitzaren adierazpen-aukera guztiak agortu ahal izateko. Beethovenen partitura horietako ezaugarri tekniko-pianistikoak, baita musikalak beraiek ere, zailtasun handikoak dira interpretatzaileentzat.

Musika beethovendarraren alderdi berritzaileak, hobe esanda, eraldatzaileak, askoz geroagoko musika-berritzaile bikain asko erakarri ditu. Ziur aski kontu hutsala baino gehiago da, kointzidentzia bat baino gehiago, egungo musikologiak agerian jarri duena: Béla Bartók konpositoreak, *Bi piano eta perkusiorako sonata* apartan, lehen mugimendua gaur entzungo dugun «*Waldstein*» sonata beethovendarraren lehen mugimenduan bezala antolatzen du: sonata forma, oinarrizko bi tema, don lehena, min bigarrena. Azken hori *Waldsteinen* motibo homologoaren ezpalekoa da nabarmen.

Enrique Granados

Los requiebros eta El pelele

Iberia, Albénizena, *Fantasía Bética*, Fallarena eta *Goyescas*, Enrique Gra-

nados piano-jotzaile eta konpositore lleidarrarena, horra Espainiako piano nazionalistaren gailurra. Konposiziotzintzan, Granados Kataluniako (eta Parisko, eta Europako beste hiri batzuetako) burgesia aberatsaren saloiei zerien erromantizismo berantiarraren produktu tipikoa zen hasieran. Hala, bere katalogoan asko dira Chopin baten edo Schumann baten forma eta adierazpen moduak berariaz aipatzen diren piano-piezak, eta, estiloaren aldetik, agerian geratzen da Granadosek Grieg miresten zuela. Hala ere, Enrique Granadosen sormena arorik helduenean eta adierazpide espainiar peto-petoaren barnean nabarmendu zen gehien eta iritsi zen kalitate artistiko onenera. Kalitate-maila handiena *Goyescas* bilduman lortu zuen. Horren eranskina da *El pelele*.

Granados maisua 1909an hasi zen, Albéniz adiskidea zendu zen urtean, *Goyescas* (edo *Los majos enamorados*) maisulana izango zena konposatzen. Sei pieza ezin ederrago dira, bi koadernotan bilduta; lau batean, bi bestean. Granadosek berak bere obraren lehen zatia Bartzelonako Kataluniako Musikaren Palauen jendarteratu zuen 1911ko martxoaren 11n. Bi urte geroago gauza bera egin zuen bigarren koadernoarekin Parisko Pleyel aretoan.

Suitearen hasierako pieza *Los requiebros* da. Gorteatze eszena bat irudikatzen du, Goyaren *Tal para cual* kapritxoaren eran. Musikak, inspiratu eta bizia denak, Goyaren garaikidea zen Blas de Laserna maisuaren (1751-1816) *La Tirana del Trípili* tonadillaren zuzeneko aipamenak ditu.

Behar duen bezala, Goyescas kontzertu batean interpretatzen denean edo diskoan grabatzen denean, *El pelele* sartu ohi da, baiki, Goyescas piezen pianotasun transzendenteari jarraipena ematen baitio; areago, margolari aragoarraren margolan eta tapizetako eszena bereizgarri ezagunenetako bati lotuta dago: maja talde batek panpina edo pelelea mantaz aineratzen du. Goyescas bilduman *El pelele* sartzeko joera horri indarra ematen dio Granadosek berak egin zuena: bere piano-obra bikaineko materialak opera bihurtzeko, aipatu pieza erabili zuen, nola gainera, operaren hasieran ipini zuen eta. *El pelele* 1913an konposatu zuen, eta 1914ko martxoaren 29an Terrassan estreinatu zuen, eta 1915eko martxoaren 5ean Bartzelonako Palauen. Operaren *Intermezzo* orkestrala kenda —opera New Yorken estreinatu aurretik idatzitakoa da—, *El pelele* dugu maisuaren azken musika-konposizioa.

Heitor Villa-Lobos

Bachianas brasileiras n.º 4

Heitor Villa-Lobos, bizitasun neurrigabea, musikaltasun oparoa, nortasun gogorra eta lan-gaitasun eskerga direla eta, Brasilgo konpositore garrantzitsuenaz ez ezik, herrialdeko musika-giroaren iraultzaileetako bat izan zen. Bere katalogoa, ziur aski, XX. mendeko oparoena da, eta, baiki, historiako oparoenetako bat; gainera, Villa-Lobosek kontzertuak zuzendu zituen, haur eta gazteentzako ezin konta ahala musika-jarduera antolatatu, Brasilgo Musika Akademia sortu, Europara eta Estatu Batuetara bidaiatu, etab. Folklore brasildar oparoaz blai, Villa-Lobosek herri-musika horiek lagun izan zituen beti, legatu horretako temak erabilita, edota herri-musikarekin bat zetozen melodiak, erritmoak eta harmoniak asmatuta, alegia, «irudimenezko folklorea».

Maisu brasildarrak herri-musikan eta musika kultuan hanka bana zuen musikaritzat hartzen zuen bere burua, baina musika eta keinu asko egin zituen kontzertuetarako musikaren mendebaldeko zirkuituetan kontuan hartu zezaten. Esaterako, joan den mendearren lehen erdiko interpretatzaile handienetako batzuei zuzendutako obrak

konposatu zituen (Arthur Rubinstein, Andrés Segovia eta Pau Casals), baita zuzenean aipatu ere mendebaldeko musika-tradizio horren aitabitxietako bat: Johann Sebastian Bach. Horren adibide dira *Bachianas brasileiras* bilduma berezia: bederatzi obra dira, formazio askotarikoetarako, eta 1930 eta 1945 artean konposatu zituen.

Gaurkoan entzungo dugun *Bachianas brasileiras* sortako pieza da, laugarrena, pianorako idatzi zuen bakarra, nahiz eta Villa-Lobosek gerora orkestrarako prestatu zuen bertsioa ere jendarteratu ohi den. Lehen idazketa 1930etako da, baina 1939ko azaroaren 27an estreinatu zuen José Vieira Brandão. Lau mugimenduek bina izenburu dituzte; lehenak Bachen suiteen mugimenduek bezalakoak dira, eta bigarrenak, folklore brasildarraren aipamenak. *Preludio (Introdução)*, *Coral (Canto do Sertão)*, *Aria (Cantiga)* eta *Dansa (Miudinho)*. *Preludioa* tema bakarreko pieza eder eta berealdikoa da. Corala ere ibili geldokoa da, baina oso libre eta irudimentsua, herri-musikako elementuren batekin lotura handiagokoa. *Ariak* hiru zati simetriko ditu (a-b-a), eta, izenburuak argi uzten duenez, piezarik *cantabile*ena da. Tempo geldo edo moderatuko hiru mugimenduen ondo-

ren, azken *Dansa* lehertzen da, erritmo eta denbora oparo eta biziz amaierari distiratsua osatzeko.

Alberto Ginastera

Danzas argentinas, op. 2

Beharbada ez dago sobera inoiz lehenago idatzitakoa gogora ekartzea, konpositore argentinarraren garrantzitsuen eta hispanoamerikako konpositore unibertsalena baino gehiago baita Ginastera; besterik gabe, XX. mendeko musika-sortzaile bikainenetako bat da, sailkapen estu horiek baztertuta. Falla espainiarraren edo Bartók hungariarraren kasuan bezala, bere musikaren balioa «argentinarra» izatearen mugez harago doa, herri-izaeraren muinean izan zuen eragin sakonari musika-pentsamendu propio eta oso pertsonal baten sakontasuna gehitu behar baitzaio. Oso gaztetatik izan zen horrela, oso gaztetakoa baita *Danzas argentinas op. 2*. Hiru orrialde bikain horiek hogeita bat urte zituela idatzi zituen, ikasle giroan, eskaintzan ageri direnak orduko adiskideak izateak frogatzen duenez: Pedro Sáenz, Emilia Stahlberg eta Antonio De Raco. De Raco piano-jotzailea bikaina izan zen, eta Argentinan lan handia egin zuen

kontzertu-lanetan eta irakaskuntzan. Berak estreinatu zuen hizpide dugun obra Buenos Airesen, 1937ko urriaren 27an. Arte Ederren Batzorde Nazionalak sari bat eman zion Ginastera gazteari 1938 urtean *Danzas argentinas* lanarengatik.

Lehena, *Danza del viejo boyero*, hiruretan laburrena da; ezkerreko eskuak tekla beltzak jotzen ditu, eta eskuinekoak zuriak, eta horrek tonubitasun halako bat sortzen du. Gitarraren hari sakatu gabeen notekin amaitzen da pieza. Ondoren, *Danza de la moza donosa* dator, pieza liriko eta intimista, melodia-ederetasun adierazezin eta adierazgarritasun samurrekoa: gozoa du ibilia, baina akorde atonal batekin amaituko da ezustean, misterio aire halako bat iradokiz. Triptikoaren amaiera distiratsua da; *Danza del gaucho matrero* kementsu eta bizia, malambo-erritmokoa, Argentinako panpako gautxoen aisialdia gogora dakarren birtuosoentzako pieza.

José Luis García del Busto

Darío Martín

Habanan (Kuba) jaio zen 1987an. Piano-eskolak sei urterekin hasi zituen, eta 2011n Piano Interpretazioko Musika Gradua lortu zuen, Urrezko Tituluarekin, Habanako Goi Mailako Arte Institutuan. 2013an Dallaseko Southern Methodist Universityn (AEB) ekin zien ikasketei, Joaquín Achúcarro ospetsuarekin, eta Interpretazioko Masterra lortu zuen. Gaur egun, Indiana Bloomington Universityn ari da egiten doktore-ikasketak, Arnaldo Cohen duela irakasle.

Lehen sariak irabazi ditu nazioarteko piano-lehiaketetan Kuban, Costa Rican, Mexikon eta Estatu Batuetan. Duela gutxi Indiana Universityren Jacobs School of Musicen Concerto Competition irabazi zuen Ligetiren *Pianorako kontzertua* bakarlari gisa interpretatuta. Halaber, Meridako (Mexiko) José Ja-



cinto Cuevas Yamaha nazioarteko piano-lehiaketan lehen saria irabazi zuen, baita Habanako UNEAC Interpretazio Lehiaketa ere. 2015 eta 2016 urteetan Honors Music Award saria jaso zuen (Dallasko Southern Methodist Universityk musikari gazte bikainei ematen die).

Bakarlari gisa eta ganbera-musikako kontzertuetan, emanaldiak eskaini ditu Japonian, Mexikon, Panaman, Kuban, Costa Rican, Erresuma Batuan, Frantzia, Alemanian eta Estatu Batuetan. Solista gisa aritu da Kubako Orkestra Sinfoniko Nazionalarekin eta Yucatan-go Orkestra Sinfonikoarekin, besteak beste. Europako eta Latinoamerikako musika-jaialdi askotan jo du. 2011n atera zuen lehen CD-a, eta Cubadisco Saria jaso zuen Bakarlarien kategorian. *Netzaj* CDa ere grabatu zuen Fadev

Sanjudo tronpeta-jotzailearekin batera, eta *Up into the silence* lana, aldiz, Diana Fuentes abeslariarekin. Bakarkako diskorik berriena *Juegos de agua* da, Mexikoko FT Musicen grabatua. Joaquín Achúcarro Fundazioaren laguntza du, bere Legacy Pianists direlakoan artean sartu baitzuen.

Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko X. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2020 | 03 | 10

United Instruments of Lucilin

Tristan Murail, Claude Lenner, Clara Olivares, Israel López Estelche, Julián Ávila, Fausto Romitelli eta Helmut Lachenmann-en lanak

2020 | 03 | 31

Trio Catch

Isabel Mundry, Gérard Pesson, Dai Fujikura, Mikel Urquiza eta Irene Galindo Quero-ren lanak

2020 | 04 | 21

Alberto Rosado (pianoa eta elektronika)

Iñaki Estrada, Aurélio Edler-Copes, Manuel Martínez Burgos, Raquel García-Tomás, Gustavo Díaz-Jerez, Carlos D. Perales eta Jonathan Harvey-ren lanak

2020 | 05 | 5

Trio Accanto

Georges Aperghis, Johannes Schöllhorn, Ramon Lazkano eta Mikel Urquiza-ren lanak

